

Aintzane Ezenarro

«Askorentzat Patxi Lopez gobernuburu arrotza izango da»

Getaria, 1971. Aralarreko bozeramalea da Eusko Legebiltzarrean. IX. legealdiko lehen osoko bilkura amaitu ostean jardun dugu berarekin. “Demokrazia oso murriztuan gaude, egia da, baina kontua da ea zer egin behar dugun demokrazia murriztu honetatik ateratzeko” esan digu, besteak beste.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Lander Arbelaitz

“Nire jardunean ez da ezer aldatu. Etorkizun politikoa ez da pertsona baten esku, ideiek dute etorkizun politikoa. Aralar ez da saltzen den

produktu bat, eskari sozial bati erantzuten dion proiektu ezkertiar eta abertzalea baizik, biolentziarik gabe aritu nahi duena. Uneon, ilegaliza-

zioa tarteko, Eusko Legebiltzarra nola eratu den ikusita Aralarrek ezkerreko oposizioaren ardura dauka, ilusioz bizi duguna, baita arduraz ere”, diosku Aintzane Ezenarrok.

Zer alda daiteke Patxi Lopez lehendakari izanda?

Demokrazia normalizatu batean bagina, alternantziak normala izan behar luke. Baina egoera ez da normalizatua parlamentu murrizt batean gaudelako. PSEk ez du PPrekin inbestidura saioa itundu bakarrik, legealdi osoan lehentasunezko harremana izango duela ere sinatu du. Itundu du halaber, gainontzekoekin garatu ditzakeen bestelako akordioak oinarri horien menpe izango direla.

Zergatik egin du aukera hau PSEk, zure ustez?

Bere hitzekin erantzunez, “bestela suizidio politikora zihoazelako”. PSEko kideen gehiengoak ez du maite PPrekiko hartutako morrontza hau, baina, bestalde, hainbat aldiz aldaketa saldu dutenez, esaterako, EAJ oposiziora bidaltzearena, bada, pentsatu dute bere hautesleriaren zati handi batek ez zietela barkatuko PPrekin –38 eserleku batu dutenez gero– saiakera ez egitea. Nik eskatzen diet onartu dezatela egin dutena, hitz guztiekin. Ez du balio hau bakarrik inbestidurarako dela esateak. PPri bere une baxuenetan eman diote euskal poli-





“Abertzaleok gehiengoak ematen digun arrazoi demokratikoari eutsi behar diogu”.

diegu. Batasunaren inguruko ezker abertzaleari ere deitu diogu eta erantzuna “erantzungo zaigula” izan da. Harremanak normalizatu behar dira eta horretarako elkar onartzetik hasi behar dugu. Horrek herritarrek eman diguten ordezkariaren araberrako indar politikoa garelako onartzea eskatzen du.

tikaren giltza. PSEk arduraz jokatu behar du, eta ez du hori egin.

Nola ikusten duzu Patxi Lopez lehendakari bezala? PSE gobernuan, berriz?

Pisu politiko gehiegirik gabeko lehendakaria izango dela uste dut. Karisma handiegirik ez duen pertsona batek lideratuko du herria. Elebiduna ez dela kontuan hartuta, euskal herritar askorengandik oso urrutiko dagoen pertsona da, askoren zatitza gobernuburu arrotza izango da. PPren zama kentzeko, PSE saiatu da hainbat independenteekin gobernu osatzen, baina badirudi ez duela nahi zuena lortu, eta oso alderdiko Jaurlaritza egingo duela, alderdiko pisu astunak jarritz. Ez zait argia iruditzen. Beraien kalkulua da, eta kontu handiz esaten dut gobernu oraindik ez baita osatu.

Nola eragingo du horrek politikan?

PSEk 25 biltzarkide dituenetz oso lotuta izango da kanpoko laguntzei, eta uneon kanpoko laguntza PPrena da. PPK, gai sinbolikoaz harago, praktikan pisuzko gaietan aurrera pausokoak emateko zailtasunak jarriko dizkio PSEri. PSEk esaten du hori abertzaleon mamuak direla. Ez naiz ados, eta ez naiz espekulatzeko ari.

Zergatik diozu hori?

Esaterako, PSEk “Kontzertu Ekonomikoak ematen dituen baliabide guztiak erabiliko ditugu krisiari aurre egiteko” dio. Kontzertu Ekonomiko-

ak arautzeko ahalmena ematen digu, adibidez, ezkerretik politika fiskal askoz aurrerakoia egiteko. Baina ez dio zein norabidean egingo duen, PPK juxtu kontrakoa planteatzen duelako. Gobernu lotuta izango da eta legegaldi osoa iraungo du.

Legeldi osoa beteko da orduan?

Bai. Gobernu hau Estatu Itun baten ondorioa baita. Nafarroako egoera bezala, EAEkoak argi adierazten du beste nazio bat garelako, beste inon posible egin ez dutena hemen egin dute. Elkar mokoka ari dira Estatuan, eta litekeena da Zapaterok mozio zentsura jasatea, baina itun hau ez dute ukituko. Hau uharte bat da, salbuespen bat.

Salbuespena aipatu duzu. Bitxia da demokrazia hau.

Demokrazia oso murriztuan gaude, egia da, baina kontua da zer egin behar dugun demokrazia murriztu honetatik ateratzeko.

Esaterako?

Alegia, guri batzuek esan ohi digute: “Ilegalizazioaren aurrean zer egin behar duzue?” Eta galdera ez da ondo planteatuta. Galdera da: “Zer egin behar dugu guztiok zurrumbilo honetatik ateratzeko?”.

Nolako harremana duzue legez kanpo dagoen ezker abertzalearekin?

Gu oposizioa artikulatzeko bidean ari gara, eta horretarako hainbat alderdi eta eragile politikori deitu

Nahiz haiek legez kanpo izan, guk onartzen diegu 96.000 pertsonen babesa dutela EAEn, eta Nafarroan 18.000rena. Bitxia egiten zait “hauekin ez dakigu jardutea posible izango den” entzutea.

Artean “bakegintzan bi urtetan pauso handiak emango direla” dio PSEk.

Hori arduragabekeria itzela da. Batetik, PSE-PPren dokumentuan ez da normalizazio politikoz hitz erdirik idatzi. Bakeari dagokionean, bake hitza desagertu da, ez dago bake prozesurik. PPKo ildo batek “ez dugu bakerik behar gerrarik ez delako, hemen askatasuna berreskuratu behar dugu” dio. Dokumentua arinkeriaz egitea eta 2011n bakea lortuko dugula esatea herri honen bake nahiarekin modu oso arinean jolastea da. Alderdi sozialistak bakerako orri bide bat baldin badu, esan dezala, bestela arduragabekeria izugarria da.

Legebiltzarreko mahaia osatu da eta Aralar ez dago bertan.

Parlamentuaren aniztasuna islatzen zuen –idatzi gabeko– araua hautsi da, eta EAJk hautsi du. PSE-PPren akordioaren ondoren, mahaiko bost kide hiru leku hartu izana aitzakia bezala erabili du, berak bi hartzeko. EAJk gehienetik gutxienerako irizpidea aplikatu nahi du, baina berari dagokionean irizpide hori ez du erabili eta hitza jan du. Gainera inongo lotsarik gabe “ez gaude posturik erregalatzeko prest” esan du.

Nola ikusten duzu EAJren oposizio politika?

EAJk, alderdi handiena izanda, hasi beharko luke zein oposizio egingo duen zehazten. Horretarako baina, hasi behar du definitzen zein izango den bere oposizio talde burua. Hori da uneon dagoen galdera ikurrik handienetako bat. Ibarretzek jarraituko al du oposizio taldea lideratzen eta azken hamar urtetan bere ikurak izan direnak defendatzen? Edo egongo al da aldaketa bat?

"Niri ez dit balio esateak 'ETari gelditzeko eskatzea antzua da'. Errealitate hau gainditzeko bakoitzak bere eremuan badu zer eginik"

Nolako oposizio politikoa egin nahi duzue Aralarretik?

Lau eremutan lan egingo dugu. Bat: krisiari aurre egiteko Erreskate Sozialerako deitu plana lantzea ezinbestekoa dugu: Bi: PSE-PPren akordioaren arabera, hezkuntzan egin diren dekretuetan atzerapausoak izan daitezke, euskararen normalizazioaren politika oztopatuz. Euren politikaren aurrean proposamenak egingo ditugu atzera egin ez dadin. Hiru: akordioan ez dago hitz erdi bat bera ere normalizazio politikoaren beharraz. Patxi Lopezek kanpainan esan zuen, bera lehendakaria balitz alderdien arteko bilera txanda egingo zuela elkarbizitzarako marko bat adosteko. Orain hori ahaztu du PPren gatibu direlako. Lau: herri honetan sufrimenduaz dagoen ikuspegia zabaltzen hasi ginen. Aralarren ekimenez, terrorismoaren biktimizez harago, trantsiziotik hona gutxienez 109 pertsona hil eta 500 pertsona zauritu izan direla poliziaren gehiegikeriaz ageri da Legebiltzarrak landutako txostenean. Hori desagertze-ko arriskuan dago uneon.

Nola ikusten duzu abertzaleen arteko harremana?

Abertzaleok gehiengoak ematen digun arrazoi demokratikolari eutsi behar diogu, hori dela bide bakarra barneratu behar dugu. baina horrek halabeharrez inor ez baztertzea eskatzen du. Herri honetan abertzaleetasuna ulertzeko modu desberdinak daude. Gauza ez da berdintsuen arteko lanean oinarritzea, desberdin pentsatzen dugunon artean lan egitea baizik. Herri batean erabakitze-ko eskubidearen aldarria ez badu gehiengoak mantentzen, eskubide izatetik aldarrikapen izatera pasatzen da. Zein estatu demokratikoan lortu da herriaren gehiengoaren eskariz erreferendum bidez herriari zer nahi duen galdetzea? Quebecen eta Eskozian. Gehiengoak eutsi duen lekuetan. Bazterketan erortzea akats politiko estrategikoa da. Ez da oso logikoa eta argitsua abertzaleon gehiengo biltzen duen alderdia baztertzea.

Egoera aldatzeko aukerarik bai?

Errealitate hau gainditzeko bakoitzak bere eremuan badu zer eginik. Niri ez dit balio esateak "ETari gelditzeko eskatzea antzua da". Nork eskatzen dionaren arabera, ezta? Bakea eta normalizazioa lortzeko norberak gogoetatu behar du: "Nik zer egin dezaket horretatik hurbilago egoteko?" Norberak besteari eskatu gabe, eta norbera guztiok gara. Ariketa hori gogoeta egitetik hasten da, eta egiteko dago, berandu baino lehen, bestela sufrimenduak gehiegi irau duen herri honetan jarraituko du. Esperientziatik ikasi behar dugu. Benetako IRAk Martin McGuinness mehatxatu du. Esperpentoak leku guztietatik iritsi daitezke. Israel eta Palestinarren arteko gatazkan palestinarrak elkarren artean hiltzen ari dira. ■

www.argaia.com
helbidean, elkarrizketari buruzko bideoa.

Vitoria-Gasteiz

Gasteizen euskarazko hauek ez galdu:

LIBURUTEGI BIZIDUNAK

- **HEGOALDE**
Sumenditik ozeanora. Zientzia lantegia
Maiatzak 12, 11:30 (8-12 urte)
- **LAKUA**
Goazen itsasora! Ipulin musikakak
Maiatzak 14, 18:00 (4-9 urte)
- Txakolina: Elaborazioa eta dastatzea
Maiatzak 19, 19:00 (Helduak)
- **JUDIMENDI**
Blendiblu. Zientzia lantegia
Maiatzak 16, 11:30 (8-12 urte)
- **GOIURI JAUREGIA**
Kemen Lertxundi (solasaldia)
Apirilaren 23a, 20:00

GAUEKOAK PROGRAMAREN IRUDI TXOKOA

Ander filmaren aurkezpena Geu elkartearen eskutik.
Maiatzak 15, Luis de Ajuria aretoa, 20:00.

EUSKAL NARRATIBA GAUR hitzaldi zikloa

Oroimenaren ura. Inigo Aranbarri
Apirilak 22, 10:30ean. EHUko Letren fakultateko gradu aretoa

Nobela eta generoa. Anjel Lertxundi
Maiatzak 6, 10:30ean. EHUko Letren fakultateko gradu aretoa

ITZULPEN SARIA

Vitoria-Gasteizko haur eta gazte literatura alorrean euskarara egindako itzulpenik onenak
Parte hartzeko oinarriak: ALHAO 39. zk. (2009-04-01)

SAN PRUDENTZIO ETA ESTIBALIZKO ANDRE MARIAREN JAIK

Pregoa eta Orea TX-ren musika ikuskizuna
Apirilak 22, 20:00. Arriam museoa

San Prudentzioren erretreta eta danborrada
Apirilak 27, 20:00etatik aurrera. Udaletxea eta Aldundia jauregia

Dantzen eta herri kirolen erakustaldia
Apirilak 28, 12:00-18:00. Armentia

Haurren danborrada
Apirilak 28, 18:00etatik aurrera. Erdialdea

Haurren jarduerak eta jolasak
Apirilak 30, Probintzia plaza, 11:00-14:00/17:00-20:00

Aurresku eta dantza solteko txapelketa, herri jarduerak...
Maiatzak 1, 09:00etatik aurrera. Estibaliz

ETORRI ETA GOZATU GUREKINI



Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala